

noaia

**Badatorren
21. Korrikarako
berotzen**

**Usurbil, 7. Dantza
Egunaren atarian**

**Musika Astea, azken
txanpan**

9



**Miriam Arrillaga Beloki:
“Lehen ez gintuzten ikusten, orain,
noizbehinka badugu protagonismorik”**

Opariak eta barruko landareak



URTINEA

San Esteban Auzoa, Usurbil - Tel: 943 36 22 55

Turquía

AZKEN GELAK!

NOAOA
BIDAIAK

BIDAIK TALDEAN

943 373 613

IRTEERA EKAINEAN
LASARTE ORIATIK, NOAOAK GIDATUA

info@noaoa.eus **noaoa.eus**

Udarregi IKASTOLA

USURBILGO HAUR ESKOLA




0-3 URTE BITARTEKO HAUR HEZKUNTZAKO
2017, 2018 eta 2019 urteetan jalotako haurrei zuzendua

- **ATE IREKIEN EGUNA:**
Apirilaren 10ean, asteazkena
17:30ean euskaraz eta 18:30ean gaztelaniaz.
- **MATRIKULA EPEA:** Apirilaren 11tik maiatzaren 10era
[apirilaren 15etik 28ra itxita]
- **HAUR ESKOLAKO ORDUTEGIA:** 7.30 -16.30
- **EGUTEGIA:** astelehenetik ostiralera. Iraila - Uztaila
- **MATRIKULAZIORAKO HITZORDUA:**
943 374061 telefono zenbakira deitu 8:30etik 12:00etara.

Behin ikasturtea hasita, Haur Eskolak eskaintzen duen zerbitzuaren beharra izango duzuela aurreikusten baduzue, matrikulazio garaian gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizuke, epez kanpoko izen-emateei ezin baitiegu plaza eta ordutegia bermatu

Helbidea: Kalezar, 15 USURBIL Informazio gehiago: 943 374061 edo haureskola@udarregi.eus

Albistea iruditan

Segurtasun eske, Aginagako pasabide nagusian

Ibilgailuek 50 kilometro orduko abiaduraren azpitik igaro behar dute ondoko irudiko zonaldean, Aginaga zeharkatzen duen N-634 errepidean. Sarritan ordea azkarrago igarotzen dira autoak ingurune horretatik, eta ondorioz, segurtasun arazoak eragiten dituzte ondoko irudiko pasabidea zeharkatu behar izaten duten Aginagako bizilagunen artean.

Argazki hau argitaratzea galdegitearekin batera, ezustekorik izan duten aginagar batzuk errepidea behar besteko segurtasun baldintza guztiakin zeharkatu ahal izatea eskatzen dute. Semaforo batek arazoa konpontzen lagundu lezakeela diote. Argazkiko pasabidea, Aginagan gehien baliatzen den zebrabidea da. He-



Pasabide seguruagoa izatea eskatzen dute Aginagan, zenbait ezusteko izan baitira azken aldian.

ria zeharkatzen duen N-634 errepideak dituen hainbat puntu beltzetako bat da

honako hau, Txokoaldeko sarbidearekin edota Troiako pasagunearekin batera.

Laburrean

Ez da izan azken ordu aldaketa

Urtean bitan ordua aldatzen segi behar du gu gutxienik 2021era arte. Europak urte horretan har dezake ordu aldaketa eteteko erabakia. 2020rako herrialde bakoitzak neguko edo udako ordutegia artean hautatu behar du.

1944an jaiotako bazkaria

Duela 75 urte jaiotako herritarrek datoren maiatzaren 12rako antolatu dute Atxega Jauregian biltzeko hitzordua. Izen ematea zabalik egongo da apirilaren 26ra arte telefono zenbakiotan: 943 362 088 (Maria Jesus), 943 372 316 (Anttoni).

Azken aldizkaria, apirilaren 12an

Udaberriko oporraldia ate joka dugu. Opor aurreko azken NOAUA! apirilaren 12an argitaratuko dugu. 778. zenbakirako ohar edo zorian agurrik baldin baduzu, apirilaren 8a baino lehen helarazi NOAUA!ra.

noaUA

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordintzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaUA.eu

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaUA.eu:

Imanol Ubeda, Itsaso Orbegozo,

Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbieto, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herra!



Aritz Gorriti

Ezin elkarbizi

Aldizkari hau inprenta bidean zihoala, ustekabeen herritar bat agurtzera etorri zaigu. Herriatik kanpo senideek duten etxe batera doa denboraldi baterako senideekin, egoera jasangaitza bizitzen ari baita bizilagunekin. Xehetasunetan sartu gabe, jasanezina da bizi lagunon jarrera (zin dagizuet, jasanezina hizki larriz idazteko moduko hitza dela kasu honetan), agurtu gaituen herritarrari eta gertukoei osasun egoeran eragin eta kaltetzeraino.

Ezustean harrapatu gaitu bere agurrak, bagenuen bere egoeraren berri baina zer esan asmatu ezinik utzi gaitu. Bera joan orduko burura etorri zaiguna bota beharrean aurkitu gara, eta hitz bakarria gure ahotan; bide-

gabekeria. Bidegabekeria galanta nork bere etxea utzi beharra, jasanezina den besteen elkarbizitza arazo batengatik. Halakoetan ohikoena errudunak bilatzen hastea da, baina ez da zertan horraino heldu behar.

Elkarbizitza berez ez da erraza izaten. Ez dator emana edo egina. Eraiki beharra izaten da egunez egun, eta hainbatetan erabili arren, kasu honetan ezin egokiago dago-kigun kontzeptuaren bueltan, auzolanean, elkarlanean alegia.

Elkarbizitzak berez baditu idatzi gabeko arauak, arauok egoki funtzionatzen duten artean, ziurrenik ez da asaldatzeko moduko arazorik izango. Beti ere, behar beste konfiantza, errespetua, komunikazioa badago. Egoera

nahasten hasten denean ere, aipaturiko kontzeptuotakoren batek zutik segitzen badu, deuseztatu ez bada, oraindik orain, modu prekarioan agian, baina zubiak eraikitzen jarraitu daiteke.

Arazo nagusia, zubi guztiak hausten direnean etorri ohi da. Zubirik gabe, hartueman gutxi gatazkan murgildu diren pertsona, talde edo dena delakoen artean. Eta hor bitartekariak behar dira noski.

Maila pertsonaletik hasita ordea, halako gatazkak egoki bideratzeko behar beste baliabide ba ote ditugu? Eta ez baditugu, ba ote dakigu norenengana jo? Halako gatazka batean murgilduak egon eta bitartekariren bat tartean sartzen hasten bada, edozein izanda ere, benetan ahalbidetu dezake konponbiderik?

Elkarbizitza guztiek al dute irtenbideren bat?

Idatzi honen hasieran aipatzen nuen kasura itzulita, momentuz behintzat badirudi ezetz.

Halako arazoan konponbidera heltzeko ez dugu errudun eta biktimarik bilatu behar. Bidegabekeria guztientzako konponbide bat baizik. Baina dirudienez ez gaude prest elkarbizitza arazo guztiak kudeatzeko.

Maila pertsonalean sarritan eskura ez ditugun baliabide pertsonal zein ekonomikoak falta zaizkigu, eta baita araudi mailako baliabideak ere egoerok nola bideratu asmatzeko.

Elkar bizi ezina elkarbizitza baino bideragarriagoa dirudi uste duguna baino sarriagotan.

Aroa Etxeburua Ugartemendia | Garazi Lizaso Manterola | Imanol Ubeda | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Luken Arkarazo

Intxortatik, Gazte Topagunera begira

1936ko gerrako lubakiak eta garai haren berri bertatik bertara ezagutzen izan zen herritar talde bat Intxortan (Elgeta) joan den larunbatean, Ernai Usurbilek antolatu zuen irteeran.

Intxortan hasi zuten, gazte erakundea Euskal Herriko beste hainbat herritan ere asteotan ospatzen ari den Bulkada Eguna. Apirilaren 19tik 22ra Lemoan (Bizkaia)

ospatuko den gazte mugimenduaren 40. urtemugako Gazte Topagunea girotzea zuen helburu. Usurbila itzuli ostean, aurkezpen ekitaldia egin zuten Aitzaga ondoan.

Lemoara joateko gonbita luzatu zuten Ernai Usurbilek kideek, musikaz girotu zuten ekitaldian. Informazio gehiago datorren NOAUA!n eta Lemoako ekimenari buruz gaztetopagunea.eus atarian.



Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

Elkar eta Gureak lantegiak Zapategira ekartzeko urrats berria

Elkar eta Gureak lantegiak, Michelin ondoko Usurbilgo lurretara ekartzeko urrats berri bat eman zuen udalbatzak martxoaren 28ko osoko bilkuran. Aipatu Zapategi izeneko gune horren Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako hirigintza ezaugarrien aldaketa puntuala hasieraz onartu zuten aho batez.

Iragarkia ohiko bideetatik (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala) argitaratu eta bihar-munetik zenbatzen hasita, hilabeteko alegazio epea zabalduko da.

Eremua bitan banatzea

Aldaketa hau behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiak onartu beharko du, “udalerriak 7.000 biztanle baino gutxiago dituen, behin betiko



Aho batez onartu zuen Usurbilgo Udaleko udalbatzak azken osoko bilkuran, Gureak eta Elkar Zapategira ekartzeko hirigintza aldaketa.

onarpena organo honi dago-kio”. Aldaketa honen helburua, Zapategi bi eremutan banatzea litzateke.

Batetik Michelinen jarduerara indartuko lukeen hiri-lur kontsolidatua legoke, eta bes-

tetik, Zapategi eremu berria, “hiri-lur ez-kontsolidatua. Bigarren eremu honetan, izaera sozial eta kulturala duten jarduera ekonomikoak” ezarriko dira; hala nola; Elkar Fundazioa eta Gureak Lanean S.A.”.

Beterri-Buruntzako tokiko garapen sozioekonomikorako mankomunitatea

Garapen agentziarik ez duen Gipuzkoako eskualde bakarra izateari uztekotan da Beterri-Buruntza. Eskualdea osatzen duten sei udalerrietako udalak (Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgoak) 2017ko urtarrilaren 27an izenpetu zuten lankidetzaren hitzarmenak zabalduko dituzten elkarlanerako bidean sakontzera doaz.

Aipatu hitzarmen hura adostu zutenetik hain zuzen, “tokiko garapen ekonomiko eta soziala, enplegu politika edo planak, tokiko merkataritzaren eta turismoaren promozioa eta kudeaketa” gauzatuko duen eskualde mailako garapen agentzia batean ekartzeko lanean aritu

dira. Horrekin batera, “hainbat zerbitzu, proiektu eta programa jarri dituzte martxan, eskualdeko biztanleen ongizatea bermatzeko. Honatx lan-ildoak: enplegua, ekintzailtza, enpresa, merkataritzaren eta turismoaren sustapena, eta sektore sortu berri edota estrategikoen sustapena”.

Faseka sartzeko aukera

Lanketa horren emaitza, martxoaren 28an udalbatzak egin zuen osoko bilkurara udal gobernu taldeak eraman zuen proposamena; eremu honetan Beterri-Buruntzarako mankomunitate baten sorreran parte hartzeko konpromisoa hartzea eskatzen zion Usurbilgo Uda-

lari. Udalbatzak aho bateko babesa eman zion proposamenari. Alegia, Udala tokiko garapen soziokonomikorako mankomunitate honen sorreran parte hartzera konprometitzen da. Sei udalak mankomunitate berri honetan faseka sartzeko bidea zabalik uzten du. “Lehen fasean sartu ezingo duten eskualdeko udalak txertatzeko konpromisoa hartzen du, sortuko den Mankomunitatearekin sinatutako elkarlanerako hitzarmen baten bitartez eta bigarren fase batean sartu ahal izateko bidea irekia utziz”. Udaletik aurreratu dutenez, 2020rako jarri nahi dute martxan aipatu eskualde mailako mankomunitate berria.

Hauteslekuetarako

72 herritar hautatu

Zozketa bidez hautatu zituzten udalbatzaren azken ezohiko osoko bilkuran, apirilaren 28ko hauteskundeetan, Zubietan, Santueñean, Aginagan, Kalezarren eta Kaxkoko 8 hautesmahaietan egon beharko duten herritarrak. Guztira 72, nahiz haietatik 24 izango diren azkenean, lan egin beharko dutenak. Gainerakoak ordezkoiak izango dira. Halere denei, egunotan helduko zaizue jakinarazpena udaltzainen eskutik. Astebete barru, apirilaren 12an abiatuko da hauteskunde kanpaina.

EHBilduren

hautagai taldearen

aurkezpena

Maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako osatu duen lan taldea aurkezteko ekitaldia antolatu du Usurbilgo EHBilduk apirilaren 5ean, 19:00etan frontoian.

77ko alkateei gorazarre

Koalizioak larunbatean Bilbon ospaturiko MugiDA! ekimenaren baitan, 1977ko alkateen mugimenduak errepresioaren aurka eginiko lana omendu zuten; besteak beste, Joxe Antonio Altuna eta Felix Aizpurua usurbildarrena.

Maite Peña (EAJ)

foru diputatuaren hitzaldia

Zahartzen doakigun gizarte honetan, Gipuzkoak nagusien bizi-kalitatea hobetzeko dituen estrategiak, arreta nolakoa den eta Usurbilen dauden beharrak hizpide izango dituen hitzaldia antolatu du EAJ-k apirilaren 11n 18:00etan Artzabalen, gizarte politikako foru diputatu Maite Peñarekin.

“Desalojo krudela, legez kanpoko eta inhumanoa izan da”

Igande arratsaldean herri erdigunetik igaro zen manifestazioak eta horren ostean, Mikel Laboa plazan egin zuten elkarretaratzeko harridura eragin zuen une horretan kalean zirenen artean. “Gehien daukanari gehien kenduko zaio” aldarriean mobilizatu zen lagun talde bat frontoiaren atzealdean.

Galdezka zen bat baino gehiago, protesta ekintza honen inguruan. Hitzordua iragartzeko Donostialdeko Okupazio Bulegoak argitaraturiko kartelak “Usurbilen jabetza asko dituen nobleziako familia batek desalojo ilegala gauzatu du” berri ematen zuten, “Desalojorik ez erantzunik gabe” aldarriean elkarretaratzeko deitzaiekin batera.

Mobilizazioa burutu zuten taldeak argibide ugari dituen honako idatzia helarazi du NOAUA!ra.

“Egoera tamalgarrian”

Martxoan hasieran, ondoko irudian duzuen Kale Nagusiko 19. zenbakiko etxe hutsa okupatu zutenak desalojatu dituztela salatu zuten igandean, herrian barrena burutu zuten mobilizazio baten bidez. “Gaur legez kanpoko beste desalojo inhumano bat salatzeraz etorri gara. Eraso honi erantzutera eta aldarrikatzera gehien dutenei gehien kenduko zaiera”.

NOAUA!ra helarazi duten idatzian gertaturikoa azaldu dute. Martxoan hasieran aipatu etxea okupatu zutenean, eraikina egoera tamalgarrian zegoela diote. “Sabai eroriak, leiho hautsiak, 3. solairutik azkeneraino iristen ziren itokinak...”. Eta horrek aldameneko etxeetako egiturei eragiten ziela ohartaraztearekin egoerak agerian uzten duela diote, “jabeek



Desalojoa gertatu den Kalea Nagusia 19ko eraikina, igandeko mobilizazioko pankarta esekia duela.

DESALOJOA KAXKOAN

“Jabetza pribatua lehenetsi da etxebizitza eskubidearen aurretik, jabetza hau erabat utzita egonda ere”

eraikina erabiltzeko duten interes falta”.

Etxea okupatu eta hiru astez luzatu zituzten beharrezko konponketa lanei ekin zieten. “Horrela, hondatze-prozesu progresibo batetik, arriskurik gabeko egituraren egoera egonkor batetara iritsi dira, eta noski, guztiz konpontzeko asmoa zuten”.

“Etxea tapiatuta”

Denbora tarte horretan, etxe jabearen berririk ez dutela jaso adierazi dute, inolako ohartarazpenik gabe, aurrez inolako hartuemanik izan gabe, “etxea tapiatuta” aurkitu dute egun batetik bestera, eta gainera, “haien gauzak barruan zituztela”.

Jokabide honek argi uzten du, “etxe honetako jabeek eta negoziaketa eta adostasunaren

bidea erabiltzeko asmorik ez zutela”. Ondorioa agerikoa; bertako bizilagunak kalean geratu dira, baliabiderik gabe. Egoera honen aurrean, “bizilagun bat udaletxera gerturatu zen haserre, azalpenak eskatu eta haien gauzak berreskuratzeko egun bat adosteko bidearen bila. Udaltzaingoak adierazi zuten haien egoitzaren bortxatzearen eta legez kanpoko desalojoaren aurretik bertaratu zirela. Zin egin zuten jabeak eta etxean bizi zirenak harremanetan jarriko zituztela”. Konponbiderantz pauso bat gehiago eman zuten etxe jabeak duen “bozeramailearen idazkariak ziurtatu zuten pertsona hauen gauzak berreskuratzea erraztuko zutela”.

Jabetza pribatua, etxebizitza eskubidearen gaineratik

Astebete igaro zen ordutik eta etxe honetako bizilagunek erantzunik jaso ez eta “haien kabuz konponbidea bilatzera behartuak ikusi ziren”. Diotenez, “une hartan ohartu ziren ezin izango zutela etxe barrura sartu, sarrera guztiak erabat blokeaturik utzi dituzte eta,

baita ate nagusia ere”. Gertakariotatik ondorioztatu ahal izan dutenez, “desalojo krudela, legez kanpoko eta inhumanoa izan da. Jabetza pribatua lehenetsi da etxebizitza eskubidearen aurretik. Jabetza hau erabat utzita egonda ere, etxearekiko dituzten eginbeharrak bete gabe ere. Beste modu batera esanda, Estatuak nobleen jabetzak babesten dituzte nahiz eta hauek erabiltzeko interesik ez izan eta inork ez du jende xumearen etxebizitza eskubidea babesten”.

Okupatu zuten etxearen jabea nobleziako familia bat da, “abizen boteretsuak ditu eta inpunitatea izan dute mendeetan zehar. Sistema feudalaren garaian nobleziako parte izateak, egungo sistema kapitalistan espekulazioaren eta mundu enpresarialaren parte izatera pasa dira”, igandeko mobilizazioko deitzaileen esanetan.

Kale Nagusiko eraikin honez gain, erabilpenik ematen ez dioten hainbat etxebizitza eta lursail dituztela gaineratzen dute, Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan.

Aitzol Iriondo presoaren egoera plazaratu dute bere Usurbilgo lagunek

Aitzol Iriondo Frantziako Moulinseko espetxean bakarrik dagoen euskal preso lasartearraren egoera plazaratu zuten Usurbilen dituen lagunren ahotik, Usurbilen Nahi Ditugu bildunek presoaren inguruko ekimen astearen baitan, martxoaren 29an Mikel Laboa plazan deitu zuen azken ostiraleko elkarretaratzean.

Lasartearra izan arren, Usurbilekin lotura estua du Iriondok, "gaztetatik izan du harreman estua Usurbilekin. Horren lekuko, hainbat usurbildar joaten gatazkiola bisitan. Izan ere, Aitzolek lagun kuadrila hemengoa du".

"Aitzol bakarrik dago"

2008an atxilotu zuten Frantzia hegoaldean, lehenbizi Parisen kartzelaratu, gerora Moulinseko segurtasun altuko espetxean. "Hemendik 700km-tara eta oso gaizki komunikatua dago eta bertara iristeko aukera bakarra kotxez joatea da", zioten elkarretaratzean hitza hartu zuten Aitzolen lagunak.

Espetxeko eguneroko bizimodua gogorra izanik, "bertan zeuden kideekin partekatzeak egoera hau errazago eramaten laguntzen zion". Baina azken urte honetan bere bi kideak beste bi espetxetara gerturatu dituzte eta "orduz geroztik Aitzol bakarrik dago". Hila-beteak daramatza egoera horretan. Gogoan izan, Euskal



Aitzol Iriondo preso lasartearraren egoera plazaratu zen, Usurbilen Nahi Ditugu bildunek martxoaren 29an antolatutako elkarretaratzean.

USURBILN NAHI DITUGU

"Azken urtean bere bi kideak bi espetxetara gerturatu dituzte eta orduz geroztik Aitzol bakarrik dago"

Herrira gerturatzea eskatu duten Frantziako euskal presoek Mont de Marsans eta Lanne-mezan-eko espetxetara hurbiltzen joan dela azken aldian, Frantziako Gobernuak. Baina eskaerok ez ditu bete ehuneko ehuneko. Euskal presoaren eskubideen alde martxoaren 29an Mikel Laboa plazan egindako elkarretaratzean gogorazten zuten, "iazko abenduan komunikabideetan salatu zuen moduan, 3 presorekin blokeo egoerak jarraitzen du gaur egun. Tarteetan dago Aitzol. Beraz badira jada hilabete batzuk bakarrik dela espetxe hartan".

Espetxean sortzen

Usurbilgo lagunak Iriondori aurreko hilabeteetan egindako bisitetako batean, bere artelanak Lasarten erakusgai jartzeko zela adierazi zion. "Espetxetik kanpora eragiteko beste modu bat zela zioen, gai batzuen inguruko beraien sentipen, hausnarketa eta ikuspuntua kaleratu, eta nolabait, herriarekin harremana egiteko beste modu bat". Hor sortu zen egunotan Sutegin izan den erakusketa antolatzeko ideia.

Etenik gabe sortzen aritu baita espetxean. Lagunen esanetan, Andatzari buruzko proiektu bat idatzia du, 2016ko "Kalera Kalera" ekimenean egur tailak ikusgai jarri zituen, 2015ean "Bobby Sands: mar-txa baten lehen notak" liburua kaleratu zuen Jurgi Mendinue-ta euskal presoarekin batera.

"Amaren Etxea" presoaren errealitatearen aurpegi anitzak

Aitzol Iriondo eta Itziar Moreno euskal presoaren sorkuntza lanak Sutegin jartzearekin bat aurkeztu zuten martxoaren 28an, "Amaren Etxea" liburua. Presoaren familia eta lagunaren testigantza biltzen dituen ia bostehun orriko lanak beldur eta irrikak azaleratzen ditu; testigantza goxoak eta ilunak tartekatuz. Jokin Urainek idatzitako liburuak aberriatik urrun dauden horien egoerari beste aurpegi bat jartzea du helburu. Hala, Gabriel Arestiren "Aitaren Etxea" poema ezagunari buelta bat eman eta emakume irudia jarri dio. Etxeko goxotasunaren eta sutondoaren irudi, aberriari emakume aurpegia jarrita.

Espetxea eta emakumea

Artelanaren erakusketak ere horixe bera du ardatz, espetxean dauden emakumeen egoera. Aitzol Iriondok eta Itziar Morenok espetxearen ikuspegi jakin bat partekatzen dute. Espetxea eta emakumearen arteko arrakala horretan bilaketa eginda. Itziar Morenok "ekintza pornoterrorista txikia" eskaini nahi du bere lanekin, espetxean dauden emakumeen sexu-harremannen gabezia eta tabuak azaleratuta. Aitzol Iriondo lasartearrak ere espetxean dauden emakumeen egoera azaleratzen du, bai eta espazio oso murriztuetan dauden presoaren askatasun falta ere.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak ·beira bikoitza
·segurtasun beirak ·dutxa-itxiturak eta irristailuak
·ispiluak ·barandak ·kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Orbeldikoak, ate joka dugun

7. Dantza Egunerako prest

Mugimendu bizian datorkigu Orbeldi Dantza Taldeak apirilaren 13rako antolatu duen 7. Dantza Eguna. Herrira zabalduko dute egun osoz dantza giroa, antolatu dituzten heldu eta haur dantzarien topaketekin. Topaketena izango baita aurtengo Dantza Eguna. Dantzariak elkartu, talde argazki bana atera, eta herrian desfilatuko dute kalejiran, frontoiraino. Gero pilotalekuan emanaldi bana eskainiko dute. Helduen topaketa goizez ospatuko da, gaztetxoena arratsalde. Nafarroako nahiz Gipuzkoako dantzari talde ezberdinen bisita espero da herri honetan astebete barru.

Eta eguna borobiltzeko, azken hilabeteotan mimo handiz prestatzen aritu diren "Tipi Tapa Pub" ikuskizunaren estreinaldia! Oraingoan ere dantza, musika eta antzerkia uztartuko ditu, parte hartze aldetik jendetsuena izan ohi den urteko herri emanaldi nagusiak.

Dantza giroa goizaldera arte
Ate joka dugun Dantza Eguna, goizaldera arte luzatuko



Dantzarien topaketek hartuko dute plaza apirilaren 13an. Helduena ospatuko da goizean, gaztetxoena arratsalde partean.

USURBILGO 7. DANTZA EGUNA

Nafarroako nahiz Gipuzkoako dantzari talde ezberdinen bisita espero da herri honetan, astebete barru.

da aurren. Urtero harritu eta hunkitzen gaituen Orbeldikoen gaueko ikuskizunaren estreinaldiarekin ez baita amaituko aurtengoa. Dantza giroaz gozatzeko aukera izango da goizaldera arte, Usurbilgo Larrian

Gozo taldearekin. Inauteri Festaren gauan egin bezala, gau txoriak dantza batean jartzera itzuliko dira frontoira.

Bazkari herrikoia

Dantza saioen artean, atsedeen hartu eta indarberitzeko bazkari herrikoia antolatu du Orbeldi D.T.-k. Adi, otordura bertaratu nahi duzuenok txartelak aurrez eskuratu beharko dituzue Artzabalen edo Orbeldi Dantza Taldeak Oiardo Kirolegian duen Dantza Gelan, ostegunetan, 19:00-21:00 artean.

Goizetik goizaldera, dantza batean

Apirilak 13, larunbata

IV. Dantza Taldeen Topaketa

■ 10:30 Dantza taldeei harrera frontoian:

- Erketz (Lasarte).
- Ortzadar (Iruñea).
- Monteagudoko Danzanteak (Monteagudo).
- Orbeldi (Usurbil).
- 11:30 Argazki ofiziala udal etxean.
- Jarraian, kalejira herriko kaleetan zehar.

■ 12:30 Emanaldia frontoian.

■ 14:00 Bazkari herrikoia Udarreri Ikastolako jangelan.

I. Dantzari Txiki Topaketa

- 16:00 Elkartzea Potxoenean:
 - Egape (Urnieta).
 - Haurtzaro (Oiartzun).
 - Erketz (Lasarte).
 - Urki (Andoain).
 - Herri Ametsa (Donostia).
 - Orbeldi (Usurbil).
- 16:45 Argazki ofiziala uda-

letoan.

■ Jarraian, kalejira herriko kaleetan zehar.

■ 18:00 Emanaldia frontoian.

eta eguna bukatzeko...

- 22:30 "Tipi Tapa Pub" ikuskizun herrikoia.
- 00:00 Erromeria Larrian Gozo taldearekin.
- Antolatzaileak: Orbeldi D.T. eta Usurbilgo Udala.

15. Soinurbil, azken txanpan

Zumartek antolaturiko Soinurbilen bada oraindik zer ikusi eta entzuna:

Apirilak 4, osteguna

■ 18:30 Zarauzko eta Zumarteko biolin jotzaileen emanaldia Sutegiko auditorioan.

Apirilak 5, ostirala

■ 19:30 Txamukos Maria-txiak Artzabalgo plazan.

Apirilak 6, larunbata

■ 12:30 / 18:30 Usurbil eta eskualdeko 25 txistularirekin kalejirak.

■ 19:30 Lauhaizeta akordeoi orkestra, abesbatza eta klake taldea frontoian.

Apirilak 7, igandea

■ 12:30 Zarauzko musika bandaren kalejira.

■ 13:00 Aipatu musika bandaren emanaldia frontoian.

Apirilak 10, asteazkena

■ 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua Getariako Iturzaeta Herri Eskolan, bertako J.S. Elkano musika eskolarekin egiten ari diren trukaketaren baitan.

■ Antolatzaileak: Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

■ Laguntzaileak: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxabank.

Harria Hitz

Usurbilgo kultur altxorrek, Zumeta Arte Estudioa eta Txokoaldeko Txalaparta Txokoa bisitatzeko aukera berria, Usurbilgo Udalak apirilaren 13rako, 10:00etan frontoitik abiatuta antolatu duen Harria Hitz bisita gidatua. Gogoan izan, 25 laguntzako lekua dago. Izena aurrez eman behar da bideotatik: 688 81 80 17 edo info@kultour.pro



Tafallako eta Iruñeako lagunekin batera ospatu zuten larunbatean Kantu Taldeak, 10. urtemuga festa. Irudi gehiago, noaua.eus atarian.

Gure haurrak parekidetasunean hezten?

Nola ekidin gure seme-alabek telesail eta film sexisten edukiak barneratzea? Zer egin edukioak kontrolatzeko? Guraso askorentzat kezka iturri dira gisa horretako egoerak. Heziketa on bat jasota ere etxean zein ikastolan, haurrek kanpo estimulu gehiago ere jasotzen dituzte, telebista eta liburuetatik bereziki. Gai hori landu zuten martxoaren 26an Ilazki Gaintzaren Potxoenean hitzaldia hurbildutako guraso zein herritarrek. Denek erabaki zuten euren seme-alabak berdintasunean heztea, baina nola egin aurre kanpo estimulu negatiboiei? Neurri batean eduki horiek gurasoek kontrola ditzakete, aukeratzeko garaian. Nola jakin, ordea, liburu edo film horren edukiek gutxieneko neurri batean berdintasun printzipioak betetzen dituela? Bechdel testa



Ilazki Gaintzak martxoaren 26an Potxoenean eskainitako hitzaldia.

egitea litzateke egoera horren aurrean hartu beharreko lehenengo neurria. 3 galdera errazekin jakin dezakegu emakumearen papera gutxiengo estandar batzuen aurrean betetzen dela: 1-Gutxienez, emakumezko bi pertsonaia agertzen dira. 2-Bi pertsonaiok elkarrekin hitz egiten dute uneren batean. 3-Gizonei buruz ez den beste gai baten gainean hitz egiten

dute.

Bechdel testak rolak parekideak direnik ez du bermatzen, baina bai emakumeen gutxiengo ikusgarritasun bat.

Genero rolak haustea

Liburu edo filmak aukeratzean haratago begiratu daiteke eta horretan genero rolen gaineko hausnarketa egitea komeni da. Haurrei zuzenduriko edukie-

tan sarri banaketa nabarmena egiten da rolen artean. Neskak ahula eta dependienteak dira, eta protagonistak badira, erregina edo printzesak izango dira. Mutilak indartsuak eta ausartak izango dira, superheroiak eta salbatzaileak. Gisa horretako edukien aurrean zer egin? Ilazki Gaintzaren gomendioa ilustrazioei eta laburpenei errepertatzea da, zein eduki landuko diren alde zurretik jakin ahal izateko.

Araza bera sortzen da jostailuak erostean ere. Genero rolen hausten duten jostailu parekideak erostea da beti aukerarik onena.

Hitzaldia amaitzean gurasoen kezkak plazaratu ziren. Aurrez aipatutako guztia egin da ere, eremu ez kontrolatueta haurrek jasotako estimuluen aurrean zer egin gutxi daukate-lako kezka dira gehienak.

BAZKIDEEN TXOKOA



apirilaren 5ean ZOZKETATUKO dugu:

AGINAGA
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe

31 ETXEBIZITZA BERRI UGARTONDON



Pertsonalizatu zure etxebizitza nahi duzun modura



Armairuak



Sukialdea



Pertsonalizazioa

943 30 29 20

www.sukia.com

sukia

Zure etxean zaude Estás en tu casa

Tapak eta aurkibideak prest

Agur esan diogu 2018 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2018ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok, azala eta aurkibidea doan jaso ditzaitezue NOAUA! Kultur Elkarteko egoitzan

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldis, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, **Lizardin** edota **Lauroken** egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

2018



724-764 zenbakiak

Lan mundurako sarbidea, eskualdean eta euskaraz

Ikas-prozesua euskalduntzeaz aparte, lan prestakuntza ere euskalduntzeko bidean, Lanbide Heziketako elkarteek eta erakunde publikoek egindako lanari esker, besteak beste. Hortaz, hurrengo ikasturtean ere, euskaraz ikasteko hamai-ka aukera izango da.

«Lanbide Heziketa mundua enpresa munduarekin dago erabat erlazionatuta, eta enpresa mundua nahiko erdalduna izan da», onartzen du Ainitze Blancok, Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendari eta Laneki Lanbide Heziketa indartu eta hobetzeko Elkartearen lehendakariak.

Errealitate hori aldatzeko sortu zuten, hain zuzen, Elkartea hura 2001ean, Ikaslan Gipuzkoa, Ikaslan Bizkaia, Ikaslan Araba eta Helte elkarten artean. «Lanbide heziketaren euskalduntzea» zuen helburu, eta horretan dihardute, besteak beste, Buruntzaldeko Udalen laguntzari esker.

Ikasmaterialeen hizkuntza, oztopo

Bide horretan, ikasmateria- la euskaratzeari ekin zioten, izan ere, «arazoa zen, baita ere, material asko gaztelania hutsean zegoela, eta euskarazko eskolak ematerakoan, oztopatu egiten zuen», dio Blancok.

Horri esker, egun 24 arlo profesionaletako 801 ikasmateria- l daude euskaratuta ondorengo web-orrialde honetan: www.jakinbai.eus

Horrekin batera, Lanbide Heziketako hiztegia ere jarri zuen martxan Laneki elkarteak 2010. urtean. 2017an hiztegi kolaboratibo bihurtu zuten, eta horri esker, dagoeneko 11.000 termino jasotzen ditu, hau ere, Lanbide Heziketa euskaraz ikastea errazteko.

Enpresetan jarraipena, euskarazko ikasketek

Aurreneko oztopoan, beraz, laguntzen ari da Laneki elkarteak, baina bigarren pauso bat ere beharrezkoa da ikas-prozesu osoa euskalduntzeko: «oso garrantzitsua da ikasle euskaldunei aukera ematea praktikak ere euskaraz egiteko».

Ez soilik ikaslearentzat bere-arentzat: «era berean, gizar- tean nabaritu egiten da hori», onartzen du Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak Horrek datuetan eragin zu- zena dauka. Egun ikasleen %40ak euskaraz ikasten du Lanbide Heziketan, eta kopuru hori are altuagoa izate- ko, lanean ari dira Buruntzaldeko Udalak.

Ikasketen alderdi prakti- koan ere, datuak positiboak direla onartzen du Lanekiko lehendakariak: «Lantokiko Prestakuntza egiten duten ikasleen %62,74ak euskaraz egiten du, eta Duala egiten ari diren ikasleen %52,24ak egiten du euskaraz».

Prestakuntza horretan ja- rri du indarra azken urteotan Gipuzkoako Foru Aldundiak: «Hizkuntza Berdintasuneko zuzendaritza nagusiak lan- tokietan prestakuntza aldiak euskaraz egiteko diru-lagun- tzak ematen dizkie hala eska- tzen duten enpresei».

Zehazki, 2018an, lurralde- ko 90 enpresek jaso zuten la- guntza, guztira, 72.000 euro. Baina ez da kopuru kontua bakarrik; «enpresak kontzien- tziatuagoak daude», dio Hernaniko Lanbide Heziketako zuzendariak. «Beharra» ere areagotu egin dela diote Ur- nietako Salestar ikastetxetik.

Eusko Jaurlaritzak bultzada ikas-prozesuan

Lanekik materialarekin egi- ten duen lanaren, eta Foru



Euskalduntze bidean sakontzen segitzen dute Buruntzaldeko lanbide esko- lek. Horretan dihardu Laneki elkarteak.

AINITZE BLANCO

“Lanbide Heziketa enpresa munduarekin dago erabat erlazionatuta eta enpresa mundua nahiko erdalduna izan da”

Aldundia prestakuntza euskalduntzeko egiten ari den indarrarekin soilik ez, Eusko Jaurlaritza ere «bultzada» ematen ari da ikas-proze- sua euskaraz izateko, Aini- tze Blancoren ustez. Baita Buruntzaldeko Udalak ere, urtero animatzen baitituzte ikasleak euskaraz ikastera.

Horren isla da, hain zu- zen, A eta D ereduaren artean dagoen B+ ereduaren ezar- pena: «honen arabera, talde bakarra dago euskaraz eta gaztelaniaz ikasle euskaldun eta erdaldunekin».

Gai batzuetan bikoiztu egi- ten dira, eta orduan, euskal- dunek dagoeneko bermatuta daukate gai batzuk euskaraz egitea».

B ereduaren arazoetako bati aurre egitea da arrazo- ietako bat, gaztelaniaren pre- sentzia gutxitzea; eta bide batez, «ikasleak animatzea D ereduaren izena ematen».

Izan ere, Urnietako Salestar ikastetxearen iritziz, «DBH edo Batxilergoa euskaraz ika- si duen ikasle batek eskubi- dea dauka bere formakuntza- rekin euskaraz jarraitzeko».

Ikastetxe berria, Lasarte-Orian

Etorkizunean Buruntzal- dean euskaraz ikasteko aukera zabaltze bidean, aurretik zeuden ikastetxeei beste bat gehitu zitzairen aurreko ikasturtean: La- sarte-Oriako EAGI (Gipuz- koako Eraikuntza Esko- la), eraikuntzaren gaiaren bueltan formakuntza es- kaintzen duen Gipuzkoako ikastetxe bakarra. Hortaz, egun, bost ikastetxeetan ikasi daiteke Lanbide Hezi- keta D eta B ereduaren:

■ Andoingo Leizaran Institutua:
leizaran.hezkuntza.net
943 899 259.

■ Andoingo
La Salle-Berrozpe:
lasalleberrozpe.eus
943 590 557.

■ Hernaniko Lanbide Eskola:
hernanilanh.hezkuntza.net
943 551 958.

■ Lasarte-Oriako EAGI:
eagi@eagi.eus
943 569 222.

■ Urnietako Salesiarrak:
urnietakosalesiarrak.com
943 551 789
idadkaritza@salesianosurnieta.com

■ Usurbilgo Lanbide Eskola:
lhusurbil.eus
943 364 600

Lidia Alcerreca, zuzendaria:

“Gurean ikasle gehiago balego, denak lanarekin aterako lirateke”



Aurreneko ikasturtea izan zuen EAGI ikastetxeak Lasarte-Orian. Hiru ziklotatik D ereduan bakarra osatzea lortu dute ikasturte honetan.

25 urte Altzan egin ondoren, aurreko ikasturtean hasi zuen ibilbidea EAGIk, Gipuzkoako Eraikuntza Eskolak Lasarte-Orian, «Lanbide hutsik zeukan eraikinean», azaldu du Lidia Alcerreca ikastetxeko zuzendaria. Hortaz, «oraindik ez dugu aurreneko promozioa atera». Eraikuntzaren gaiaren bueltan zikloak eskaintzen dituen Gipuzkoako ikastetxe bakarra da. Hiru eskaintzen dituzte. Erdi-mailako bi: Eraikuntza teknikaria eta Barruko obrak, dekorazioa eta birgaitzeko tekni-

karia. Eta goi-mailako bat: obrak antolatzeko eta kontrolatzeko goi-mailako teknikaria. Nahiz eta D eredua eskaintzen duten, taldea ez da beti sortzen. Aurtengoa, goi-mailako zikloa atera da D ereduan; erdi-mailakoak A ereduan. Dena den, «giro euskalduna» dagoela onartzen du: «irakasleen %95a euskalduna da». Arazoa beste bat da: «lan ikaragarria dago, eta ikasle gutxi. Gurean ikasle gehiago balego, denak lanarekin aterako lirateke». Eta horietako zenbaitetan, «euskara beharrezkoa da».

Veronica Sanchez, ikaslea:

“Honek balio izan dit, berriro ere, euskararen munduan murgiltzeko”



Animazio Soziokulturala eta Turistikoa goi-mailako zikloko praktikak burutzen ari da Veronica Sanchez urnietarra bertako Magale ikastetxean.

Hernaniko Lanbide Heziketan Animazio Soziokulturala eta turistikoa goi-mailako zikloaren zati teorikoa osatuta, praktiketan dago egun Veronica Sanchez urnietarra, hain zuzen, bere herriko Magale Ikastetxean (Presentacion de Maria ikastetxea zena). Gaztelania du ama hizkuntza, eta eskolan ikasi du euskara: «Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza euskaraz ikasi nituen, eta ondoren, Batxilergoa, gaztelaniaz. Honek balio izan dit, berriro ere, eus-

kararen munduan murgiltzeko», azaltzen du ikasle urnietarra, pozik. Izan ere, onartzen du: «nire ama hizkuntza gaztelania denez, asko kostatzen zait euskaraz hitz egitea, eta hitz egiten ez baduzu, joera galtzen duzu». Hain zuzen, hori saihestea izan da Sanchezen helburua: «hizkuntza ez badugu galdu nahi Lanbide Heziketa euskaraz egitea aukera paregabea da». Baita lanerako ere: «hemen bizi eta lan egin nahi baduzu, beharrezkoa da».

2019 / 2020

11 aukera, 11 Lan

LANBIDE HEZIKETA EUSKARAZ
AUKERATU Lanbide Heziketa EUSKARAZ

BILATU gustukoa duzun zikloa eta HAUTATU EUSKARAZKO EREDUA! Arlo guztietan izango dituzu aukerak:

- ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA
- ELEKTRIZITATE ETA ELEKTRONIKA
- GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK
- FABRIKAZIO MEKANIKOA
- ENERGIA ETA URA
- INSTALAZIO ETA MANTENTZEA
- OSASUNGINTZA
- NEKAZARITZA

Informazio gehiago: www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)
www.hetel.eus (ikastetxe pribatuak)

Buruntzaldean:

“Felix Sarasola, Usurbilek eta Euskal Herriak izan duen euskal enbaxadorerik onena izan da”

Bestei emana bizi izan zen eta herriak mereztako esker ona omenaldi moduan itzuli zion martxoaren 31n, abenduan zendu zen Felix Sarasola usurbildarrari. Felixen bizitza irudikatuz, Kuba eta Euskal Herrira joan etorrian ibili zen bere lagun talde batek frontoian antolatutako ekitaldia, ozeanoaren bi aldeak elkartu zituen.

Felixek batean zein bestean utzitako arrastoaren islada argia izan zen frontoiko emanaldia. “Arrasto batek bildu gaitu gaur hemen guztioi. Hemen, Usurbilen hasi eta ozeanoa zeharkatuz La Habanaraino heldu eta bueltan jatorriraino dizdiraz betea iritsi den arrastoak”. Hitzokin laburbildu daitekeena, ekitaldiko aurkezleak, Mertxe Aizpuruak zioenez; laguntasuna, eskuza-baltasuna, elkartasuna eta maitasuna.

Elkartasuna praktikara eramandakoa

Gaineratu zuenez, “ezkertiarrak, eta pertsonen eta herrien arteko elkartasunaren baloreak defendatu bakarrik ez, praktikan jartzen zituen horietako pertsona zen Felix”, euskaldun eta abertzale peto-petoa, “Usurbilek eta Euskal Herriak izan duen euskal enbaxadorerik onena”.

Felixek bere lagunaren artean utzitako arrastoa, bertsoetan, kantuan, musika baliatuz itzuli zioite esker onez, ozeanoaren bi aldeetan zituen lagunak. Ander Lizarralde hasi zuen ekitaldia bertsoetan, “Felix Habanako bere etxeraino iristen ziren euskal gazte guztien aitapontekoa zelako”. Ruper Ordorikak zenbait koplak bidez abestu zion, baita Joseba Tapiak ere. “Maitatzen zaitudalako” abestia eskainiz.

Bere bidez, trikitilari belau-naldi berriaren alde Sarasolak eginiko ahalegina ezagutu genuen. Antza, Andatzpe elkar-



Ruper Ordorika izan zen, Felix Sarasola omendu zuen musikarietako bat.

FELIX SARASOLA

“Habanako bere etxeraino iristen ziren euskal gazte guztien aitapontekoa zen”

tean antolatu baitzuen Felixek, trikitilari belaunaldi berriak, tartean Tapiak berak grabatu zuten diskoa. “Diskogintzaren hasierako pauso hori berari zor diote trikitilari askok Tapiak kontatu digunez”, zioen Mertxe Aizpuruak. Tapiak oroitzen zuenez, “Felixekin aurkezpen ezberdin bat hitzartu genuen eta hala antolatu genuen erromeria txiki bat Andatzpen”. Aurkezpen hark ohitura sortu zuen gerora. “Elkarretik pasatu ziren trikitilari guztiek gauza bera egiten segitu zuten”, Tapiaren esanetan. Ozeanoz bestaldeko lagun eta

ahots bat baino gehiago batu zituen herri omenaldiak. Kantu lirikoan profesionala den Aurora Parra. Euskal Herrira etorri eta kontzertuak ematen hasten Felixek lagundu zuen Duo Jade bikotea baita. Sarasola zendu berritan Kuban egin zioten omenaldian parte hartu zuen Duo Jadek. “Han abestu genuen kanta abestuko dugu, Felixen kanta gogokoenetakoa”, adierazi zuten, “Al vaivén de mi carreta”.

Lagun arteko kantu saioa eta hamaiketakoa

10 urte bete eta bere urtemuga festaren biharamunean zen Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak eman zion amaiera ekitaldiari, “Txoriak txori” abestuz bertaraturiko guztiekin. Felixekin bat zetorren ekitaldia iza-

nik, Saizarko sagardoak, Arruti harategiak oparitu eta Andatzpe elkarteak sukaldaturiko hamaiketakoarekin borobildu zuten hitzordua, Sarasolak hain gustuko zuen lagun arteko moka-duarekin hain zuzen ere.

Antolakuntzaren ahotik, Felixen etxekoek bere aldeko omenaldia prestatu eta hitzorduan parte hartu nahiz bertaratu diren guztiei esker ona helarazi zieten. Ekitaldia iragartzeko kartelak Felixen irudia zekarren, Joxe Ramon Urtaun nafar margolariak sortutakoa. Irudi hau opari moduan eman zion artistak, familiari. Felixen anai Joxe Ramon Sarasolak jaso zuen. Joseba Sarrionandiak idatzitako hitzok ditu: “Bide asko pasatzen ziren Felixengandik, orain bidegurutze berriak behar ditugu”.

“Emozionatzeko gaitasun mugaezina”

Lasarten zela ezagutu ziren Felix Sarasola eta Porrotx. “Fotokopiak ginela esaten zuten”, adierazi zuen frontoian. “Haur handi bat zen gure Felito, berak beti zuelako abesteko, jolasteko, harritzeko, emozionatzeko gaitasun mugaezina”. Jendartean banatu zituzten

puxika koloretsuak puztu eta aireratzera animatu zituen Porrotxek omenaldira joandakoak, Porrotxek Habanan azken Aberri Egunean egin bezala. Orduan, “Felito ikusi nuen nire parean, emozionatuta, ez zait sekula ahaztuko”. Globo koloretsuen jaurtiketarekin, txuri-beltzez

margotu nahi diguten mundu itsusiari kolorea jarri nahi izan zitzaion. Argi du Porrotxek, mundu hau koloretakoa izango bada, “gu bezalako pertsona eta herri txikien koloreekin” izango da Porrotxek igandean Usurbilen eta Habanan adierazi zuen moduan.

Kuba eta Euskal Herriko lagunak batu zituen, Pelix Sarasolaren aldeko omenaldiak



Kantua, musika, mokadua... Felix Sarasola ezin egokiago islatu zuen martxoaren 31ko ekitaldiak. NOAUA! Kultur Elkarateak arratsaldean, Felixi Kuban egin-dako omenaldiko irudiak eta "Gure oroitzapenak" filma proiektatu zituen. Irudi gehiago, noaua.eus atarian.

21. Korrika badator, apirilaren 12an

Euskararen aldeko mar-txa bidean da honez gero! Ostegun honetan abiatzekoa zen Garesetik. Hamaika egunez Euskal Herria alderik alde zeharkatuko du, Gasteizeraino. Bidean nola ez, udalerrri hau ere lasterke-ta bizian jarriko du. Apirilaren 12an helduko da “Klika” aldarripean, 21. Korrika gure artera.

Azken asteotan Etumeta AEK euskaltegian usurbildar eta talde ezberdinak bildu dituen Korrika Batzordeak, herritar eta eragile gehiagorekin elkarlanean antolatatu duen ospakizun egunaren baitan izango da.

Ikastolak eta Zubietako Eskolak Korrika Txikia ospatuko dute goizean, arratsaldean igaroko da Korrika. Gero, txokolate jana, gazteen arteko olinpiadak eta bukatzeko, Joxan Artze ardatz izan eta sortzaile usurbildarra omentzen duen ikuskizuna Sutegin. Jon Sarasuak bere hitzak eta poemak kantatu eta kontatuko ditu “Iturri bati begira. Joxan Artzeren interpretazio bat” emanaldian.

Korrika laguntzeko

Ez ahaztu, Korrika laguntzeko bide bat baino gehiago dituzue.



Euskararen aldeko eguna ospatuko dugu Usurbilen apirilaren 12an, 21. Korrika helduko den egunean.

21. KORRIKA EGUNA

Ikastolak Korrika Txikia ospatuko du goiz partean. Arratsaldean igaroko da Korrika. Txokolate jana, gazteen arteko olinpiadak eta Artzeren omenezko ikuskizuna izango ditugu

Korrikako materiala erosita, agortu ez bada arropa salgai izango duzue euskaltegian. Korrika Laguntzailea kanpainarekin bat egin dezakezue, 12 euroko ekarpena eginda. Trukean, txapa eta Euskal Herriko hainbat saltokietan beharpenak izateko txartela eta gida jasoko duzue.

Apirilak 12, ostirala:

21. Korrika Eguna

- Goizean, Korrika Txikia Zubietan eta Udarregi Ikastolan.
- 14:30 21. Korrika Aginagako Mapiletik Zubietako hipodromoko zubiraino, Euskaraldiko txapekin!
- 17:00 Txokolate jana Dema plazan.
- Ondoren, herriko gazteek Olinpiadak egingo dituzte.
- 19:30 “Iturri bati begira. Joxan Artzeren interpretazio bat”: Jon Sarasuak Joxean Artzeren kantu eta olerki bilduma eskainiko ditu Sutegiko auditorioan. Sarrerak: 4 euro aurrez salgai Lizardin.
- Antolatzailea: Korrika Batzordea.

Lekukoa, herri eragileen esku

Hasi Aginagako Mapilen eta Zubietako hipodromoraino 11 kilometroko bidea osatuko du 21. Korrikak udalerrri honetan barrena. Orubete pasatxoko tartean, 14:24-15:33 artean. Ziur une hunkigarri asko biziko dituztela bereziki lekukoa hartuko dutenek. Hona hemen Korrika arduradunek helarazi diguten informazioa. Lekukoa nork zer ordutan hartuko duen eta nondik nora eramane behar duen, Gasteizeraino helduko den ezkutuko mezua.

11 kilometro

- 2034. km, 14:24:13 Mapilen: Aginagako Eskola.
- 2035. km, 14:30:13 Aginagako bus geltokian: Aginagako Jai Batzordea.
- 2036. km, 14:36:13 Lasao etxean: Elhuyar.
- 2037. km, 14:42:43 Usurbilgo Udala.
- 2038. km, 14:49:13 San Inazio bus geltokian: EH Bildu. Pello arrandegian: Orbeldi D.T.
- 2039. km, 14:55:43 Pikaolan: NOAUA! Kultur Elkarte.

Lurda mertzeria: Ta puntu.

- 2040. km, 15:02:13 Ingemar parean: Gure Esku Dago. Santueneko zubian: Santueneako jai-batzordea.
- 2041. km, 15:08:43 Amiri baserri aurretik: Udarregi Ikastola.
- 2042. km, 15:15:13 Artzabaleta ostean: Fagor Ederlan.
- 2043. km, 15:21:43 Larraitz etxe aurretik: Zubietako Eskola.
- 2044. km, 15:27:43 Araetako bus geltokia: Lanbide Eskola.

20 Korriken errepasso “musikala” Sutegin

Usurbilgo Artixten Taldekoen eskutik, badatorren 21. Korrika girotzeko, aurreko hogeien abestiak hartu eta “aztertuko” dituzte, haien ikuspegi eta ukitu ezin originalagotik. Ez ezazue galdu emanaldia, igandean (apirilak 7), 19:00etan baina adi, frontoian ez, Sutegiko auditorioan baizik!

Marrazki erakusketa

21. Korrika hizpide hartuta sormena ere plazaratuko da oraingoan. Gai honen inguruko haurren marrazki erakusketa antolatuko du Korrika Batzordeak apirilaren 8tik 12ra Sutegin.

“Txillardegiren Klika” dokumentala

21. Korrikak Txillardegiri eta berak sortutako euskara batua omenduko ditu. Txillardegiri buruz hain zuzen, Kote Camachok zuzenduriko dokumentala proiektatuko du Korrika Batzordeak, apirilaren 10ean 19:30etan Sutegin. 14. Korrikak Txillardegiri grabatuko elkarrizketan oinarritua dago, “bere horretan, gustura eta natural ageri delako, kamerarik ez balego bezala”. Beste hainbat hizlari ezagun ere ageriko dira.

Euskaraldia Korrikan

Milatik gora Ahobizi eta Belarriprest 11 egunez ariketa kolektibo bat egiten jarri zituen iazko Euskaraldiak. 2020rako bigarren edizioa iragarri da. Ate joka dugun Korrikan ere presente egongo da, apirilaren 7ko Korrika Musikalaren ekitaldian, eta Korrika unean bertan. Euskaraldia Usurbilen sustatzeko sortutako herri batzordetik, hitzorduotan Ahobizi eta Belarriprest txapak soinean jantzita parte hartzeko deia egin digute.

Arantzazura oinez joateko deia mendizaleei, apirilaren 18an

Hamarkadetako usadioari bizirik eusten dio bai herriko nahiz inguruetako mendizale talde batek. Ostegun Santu egunez Usurbildik Arantzazura oinez joateko ohituraz ari gara. Aurtengorako hitzordua ere finkatu dute jada, apirilaren 18an. Bus zerbitzua eta bazkari nahiz askariak antolatu dituzte biderako. Ibilaldira batu nahi duzuenok izena aurrez eman beharko duzue. “Kirol pixka bat eginez, egun pasa eder bat egiteko aukera polita”, antolatzaileen esanetan.

Usurbil-Arantzazu

- Eguna: apirilak 18, osteguna.
- Abiatzeko hitzordua: 5:00etan frontoi atzetik. Bertan, autobuserako poltsak (aldatzeko arropa, oinetakoak...) jasoko dira.
- Ibilbidea: Usurbil, Zelatun, Santa Ageda (norberak eramandako otarteko jana), Mandubia (saldeta eta ardoa), Ezkio-Itsaso



Usurbil-Arantzazu bidea iaz osatu zuen mendizale taldea.

USURBIL-ARANTZAZU

Goizeko 5:00etan abiatuko dira Usurbildik oinez. 63 kilometroko bidea osatuko dute Arantzazuraino.

(40. kilometroa, autobus zerbitzua Legazpira joateko eta laranja jana), Legazpia (bazkaria: entsalada, xerra eta sagardoa).

19:00ak alderako Arantzazun (askaria eta sagardoa).

- Itzulera: 21:00ak alderako Usurbilen.
- Prezioa: 50 euro (hamaiaketakoa, bazkaria, askaria eta autobusa barne).
- Izen ematea: 600 669 276 (Joxemi).
- Antolatzailea: herritar talde bat.

Baztango itzulia antolatu du Andatzak, lehen etapa apirilaren 14an

Baztani itzulia eman asmo dio Andatza M.K.K.-k 2019an zehar. Diseinatu duten egitarauan aldaketarik ez bada, lau etapako itzulia prestatu dute. Lehenengoa, apirilaren 14rako. Beste hirurak udazken parterako, urritik abendura. Lehenengo ibilaldiak, Oronoz, Mugaire eta Artesiaga lotuko ditu. Hurrengo asteko txangorako izen ematea zabalik du Andatzak, apirilaren 10era arte. Plaza kopuru mugatua izango dela ohartarazi dute.

Baztango itzulia: 1. etapa

- Eguna: apirilak 14, igandea.

- Hitzordua: irteera 7:30etan, Oiardo Kiroldegitik.
- Joan etorria: autobusez.
- Ibilbidea: 26 km. Oronoz-Mugaire-Artesiaga.
- Izen ematea: apirilaren 10a baino lehen 10 euroko ordainketa egin kontu zenbakiotako batean: Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321 Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805.
- Oharrak:
 - Plaza kopuru mugatua.
 - Norbera egingo da bere otorduaren kargu.
 - Andatza Mendi Kirol Klubak antolaturiko irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da



Oronoz, Mugaire eta Artesiaga lotuko ditu apirilaren 14ko Baztango Itzuliaren lehen etapa.

mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea. “Federatu gabe dagoenari tramitea egingo diogu, hala nahi badu”.

- Informazio gehiago: andatza.com andatza@hotmail.com
- Antolatzailea: Andatza M.K.K.

Kirol txokoak

Ate joka dugun udaberriko oporraldian denetarik kirol jardueretan jolastuz primeran pasatzeko aukera eskainiko dute azken urteotan bezala, Usurbil F.T.-k antolaturiko txokoak. Apirilaren 23tik 27ra, 9:30-13:00 artean ospatuko den kirol ekimena, 6-12 urte arteko LHko ikasleei zuzendua egongo da. Parte hartzeko izen emate orria bete eta 50 euroko ordainketa egin, haurren izen abizenak eta kontzeptuan “Aste Santua” adieraziz, Kutxaren kontu zenbaki honetan: 2095 5069 06 1071029051.

Adi, izen emate orria eta ordainagiria, ostegunean (apirilak 4) utzi ahal da 17:30-19:00 artean Usurbil F.T.-k Haranen duen bulegoan. Informazio gehiago bertan edo futusurbil@yahoo.es helbidetan.

Aginagako txokoak

Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak txokoak antolatu ditu apirilaren 15etik 26ra (jai egunetan izan ezik). Apirilaren 5ean itxiko dute izen ematea. Informazio gehiago: aginaga@eskolatxikiak.org

Udan, “Enjoy English” ikastolan

Atzerriko ingeles hiztunak diren hezitzaileek gidatuko dituzten udaleku irekiak antolatu ditu Ikastolen Elkarteak HH5etik LH5. mailara arteko ikasleentzat, ekainaren 24tik uztailaren 19ra, asteleheneetik ostiralera, 9:00-13:00 artean. 2, 3 edo 4 asteetan parte hartu ahal izateko aukera eskainiko dute. Atzerriko hezitzaileak etxeak hartzen duenak, doan izango ditu udalekuok. Izen ematea, apirilaren 12ra arte Ikastolako idazkaritzan. Informazio bilera hilaren 8an 16:45ean Agerialden. Xehetasun gehiago: udarregi.eus

Miriam Arrillaga Beloki:

“Aldaketa handiak ematen ari dira”

Joan den martxoaren 17an Emakume Master Cup-eko finalean arituzen Miriam Arrillaga Beloki pilotaria. Ezin izan zuten txapeldunaren txapela jantzi usurbildarrak eta Patri Espinar kideak, txapeldunorde izan ziren Zumarragan. Etb1en partida jarraitzeko aukera izan zen, emakumezkoen pilotan ematen den lehenengoetakoa.

NOAUA! Finaleraino iritsi bai, baina ezin izan zenuten irabazi. Oso urduri egon ohi zara partidaren aurretik, nola eraman duzu aspektu hori?

Miriam Arrillaga Beloki: Egia esan, finalean eta finalaurrekoan oso lasai egon nintzen. Behin frontoira iritsi eta beteta ikustean nerbioak agertu ziren, eta galtzen hasi ginean nerbioek indar gehiago hartu zuten, baina partida hasierako momentu horietan lasai nengoen. Patrik esaten zidan amaieraraino borrokatu behar genuela, azken finean partida 22 tantora iristean amaitzen da. Halaxe egin genuen, bukaera arte borrokatuta, baina ez zen posible izan.

Herriko frontoian ere sarritan jokatu duzu zure familia eta lagunengandik gertu. Finalean ere gertutasun hori sentitu duzu?

Berez izugarria da momentu hori. Beste partidetan familiako bi kide edo egoten dira, eta horiek ere eraman egin behar izaten nautelako [Barrez] eta aurkarien kasuan ere beste horrenbeste. Azkenean horretara ohitu gara denok. Zumarraga eta Erreterian ikusi genuena erabat ezberdina izan zen, frontoia leporaino beteta zegoen eta esan ziguten, gainera, 150 pertsona zinera eraman zituztela partida ikustera. Hori pentsatzearekin bakarrik



Miriam Arrillaga Beloki, Usurbilgo frontoian ateratako argazkian.

MIRIAM ARRILLAGA BELOKI:

“Biok lesioak genituen eta finalera iristea ezinezkotzat ikusten genuen”

nolako momentua izan zen irudika dezake edonork.

Zure kide Patri Espinar izan zen, behar bada finaleko partehartzaileen artean ezaguna Euskal Herriko txapelduna izan delako eta “El Conquistador del Pacífico” programan agertu delako. Nolako izan da berarekin aritzea?

Patri lehendik ere ezagutzen nuen. Beste pilotari gehienekin bezala tratu pixka bat banuen, baina ez beste munduko konfiantzarik. Orain hiru partida jokatu ostean konturatu naiz oso pertsona lehiakorra dela, beti partidak irabaztera ateratzen dela eta horrek azken finean konfiantza handia ematen zidan. Oso gustura aritu naiz berarekin. Azken partida amaitzean honakoa esan zidan: partida guztietan dena eman dugu, baina azkeneko

honetan ez da posible izan. Harro egoteko moduan gaudede. Hasieran ez genuen uste honaino iritsiko ginenik; biok lesioak genituen eta finalera iristea ezinezkotzat ikusten genuen.

Gizonezkoen partidak astero ikusteko aukera dago telebistan. Emakumeak ordea, final eta partida garrantzitsuetan grabatzen zaituzte. Aldaketa-rik nabaritzen duzu azken urteetan berdintasunaren bide horretan?

Lehen ez gintuzten ikusten, orain ordea, noizbehinka bada ere izaten dugu protagonismo-rik.

Joan den urtean txapelketa honetan parte hartu zuen nire entrenatzaileak eta partidak ikustera hurbildu nintzen. Orduan jakin nuen nik ere hor egon nahi nuela.

Oraingoan finalaurrekoetan eta finalean agertu gara telebistan, nahiz eta askoz partida gehiago jokatu ditugun komunikabideek jarraipenik egin gabe. Zentzu horretan, hala ere, aldaketa handiak ematen ari dira.

Zuk uste inoiz emakumezkoen eta gizonezkoen partidak berdin-berdin emango direla telebistan, alegia, proportzio berean?

Nik uste dut baietz, baina ez naizela hemen egongo hori bizitzeko. Oso urrun ikusten dut momentu hori. Hala ere, guk bidea egiten badugu ondorengoek aukera hori izango dutela espero dut. Gure aurrekoek egin dute bidea gu gaur gauden lekuan egoteko. Badaude pilotari asko gure bidea egin dutenak, eta ea gu ere gai garen ondorengoei zerbait uzteko.

Pilotaren inguruan ari gara, baina zuk palan ere jokatzen duzu. Denboraldia hasi da eta txapelketa duzue jokoan asteburuan. Oraingoan irabazlearen txapelik izatea espero al duzu?

Bai, orain hasi da. Herrialde bakoitzak bere selekzioa osatzen du. 22 azpikoetan arituko naiz aurten eta ez dakit noraino iritsiko naizen, zaila egongo da kontua. Espero espero ez dut gehiegi espero, baina ikusiko da.

“Erremontean ere jokatu nuen partida bat Frantzian”

NOAUA! Bat aukeratu beharko bazenu, zein duzu nahiago, pala edo pilota?

Miriam Arrillaga: Duda handia izango nuke egoera horretan egongo banintz. Eskutik hasi nintzen eta badu eskuak halako xarma bat. Sufritu ere asko egingen dut eskuetatik, baina ziu-rrerik eskupilota aukeratuko nuke. Ez dakit, egoera horretan inoiz ez egotea espero dut.

Frontoiak beste aukera batzuk ere eskaintzen ditu: zesta punta, erremontea... horietan ez zara animatuko?

Trinketea probatu dut frontoi txiki batean. Espainiako Txapelketa prestatzen ari gara apirilera, 30 metroen modalitatean. Probatzekoa naiz frontball ere eta hortik aurrera dauden aukera guztiak. Erremontean ere partida bat jokatu nuen Frantzian, eta lehenengo



Miriam Arrillaga Beloki, Emakume Master Cupeko finalaren egunean.

MIRIAM ARRILLAGA
“Espainiako txapelketa prestatzen ari gara apirilera, 30 metroen modalitatean”

emakumea izan nintzen lurralde horretan diziplina horretan jokatzeko.

Etorkizun hurbilari begira, zein dira zure helburu eta asmoak?

Orain palako txapelketan burubelari sartuta nago. Gero mastercup-a ere etorriko da 4 t'erdiko txapelketa eta Iruneako San Ferminetako torneoaren ere bai. Hortik aurrera etortzen direnak hartuko ditut, ahal direnak behintzat bai.

Beñat Lizaso, Master Cup-eko finalean

Igande honetan (apirilak 7), jokatu du promozio txapelketa honetako finala usurbildarrak, Joseba Lasarekin. Asier Navarias eta Javier Etzezarretarekin lehiatuko dira. “Javier Etzezarreta eta Beñat Lizasok erakutsi dute astero pilotalekuan egiten dituzten entrenamenduak ez direla alferrikakoak eta iaz bezala, finalean arituko dira, nahiz eta aurten arerioak izango diren”. Final handia Beasainen ospatuko da.



Beñat Lizaso ondoko argazkian, eskuinetik zenbatzen hasita bigarrena.

Futbola Haranen

Apirilak 6, larunbata

■ 09:30 Infantil mutilak B: Udarregi Usurbil F.T.-Euskalduna SD

Apirilak 7, igandea

■ 10:00 Futbol Eskola 2009: Usurbil F.T.-Mundarro
 ■ 11:30 Futbol Eskola 2008: Usurbil F.T.-Ordizia

Eskubaloia

Oiardo kiroldegian

Apirilak 6, larunbata

Eskola Kirola

■ 12:30 Infantil neskak: Udarregi B-Ereintza

Usurbil K.E.

■ 16:00 Kadete neskak, (Euskadiko Txapelketa, 2. fasea): Usurbil K.E.-Aiala ZKE

■ 18:00 Senior neskak: Urbil-Usurbil K.E.-Leizaran Eskubaloia

Apirilak 7, igandea

Eskola Kirola

■ 11:30 Infantil mutilak (Amaiera Fasea B-G1): Udarregi B Usurbil-Pitch Chocobarra Bidasoa Irun B

Usurbil K.E.-ren errifa zozketa

395 izan da zenbaki saritua. Zenbakidun errifa honen jabeak 2 lagunentzako otordua irabazi du, Aialde Berri sagardotegian.

Espainiako

sektorearen atarian

Usurbil Kirol Elkarteko jubentzen taldeak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen duela bi aste buru etxean, Oiardo Kiroldegian. Orain, apirilaren 12ko asteburuan Espainiako Sektorea jokatu dute. Jokalekua zehaztua dute, Madril lehiatuko dira. Ate joka duten asteburu garrantzitsuak xehetasun gehiago, hurrengo apirilaren 12ko astekarrian.

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Patxi
jateetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

943 362725 • 688 690 361

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalefakzioa. Igogailurik gabe. Dena berrituta. Tximinia jartzeko instalazioa ere berria. Fatxada ere bai. Tel. 695 705 905.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

San Inazio kalean 100 metrotako etxebizitza salgai. Sukaldea jan-tokiarekin, 25 metroko saloia, 2 komun, 3 logela haundi eta bi balkoi ditu. Eguzkitsua eta ia estrenatzeak. 610 52 78 32

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

Etxebizitza eta garajea salgai Etxe-aldian (San Esteban kalea). Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela eta bainugela. Etxebizitzak 60m² eta garajeak 22m². 688866968

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60.

Alokairuan

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. Tel. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara,

biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun, sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negozio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahia, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez

da garaje itxita. Prezioa negoziatuzko. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatziki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atarekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekatziki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alpe-rroburu 3an. 699 306 158

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Usurbilgo Alkartasuna Baserritarren Kooperatibak administratzen daren beharra dauka, berehala lanean hasteko. Interes-atua bazaude, deitu 943 361 114 telefono zenbakira, edo bidali zure CV alkartasuna@usurbil.com

Finantza eta aseguruetakoa kudeatzailea behar da Buruntaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: Profesionaltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak

emateko prest dagoen jendearen zerrrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gortputzaldiak@udarregi.eus

Kamarero eta sukaldari laguntzailea behar dira Aratz erretzejian.info@restaurantearatz.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoccidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Lan bila nabilen neska bat naiz. Interna moduan lan egingo nuke. Tel. 602 069 147

Interna edo externa moduan lanean berehala hasteko prest. Neska jatorra, arduratsua eta langilea. 604166831.

Lan bila nabil. Garbiketan, pertsona helduak edo umeak zaintzen. Interna bezala, orduka. Berehala lanean hasiko nintzateke. 632 140 789.

Lan bila dabilen neska arduratsua naiz, esperientziarekin. Interna, externa edo orduka lan egiteko. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649.

Lan bila dabilen mutil bat naiz, esperientzia ere erreferentzietan pertsona helduak zaintzen. Ospitalean, paseatzeko eta pozik edukitzeko prest nago. Berehala lanean hasiko nintzake. Interno edo externo bezala. 603 595 656

Emakume arduratsua naiz, eta lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiten. Interna moduan. 663 488 438



Zorionak Maddi!

Zure urtebetetzean besarkada eta muxuak etxekoan partez!!!



Zorionak Irai!!

Apirilaren 5ean, 5 urte beteko dituzu! Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak Enara eta Aiala! Apirila ospakizunez beteta dugu zuen urtebetetzeak ospatzeko. Zorionak Enara eta Aiala, ondo pasa zuen egunean!



Zorionak Egoi!!

Bi urte beteko dituzu apirilaren 7an. Muxu handi bat amona, aitona, izena, arrega eta gurasoen partez!

Heriotzak

Sandra Martin Corral

16 urterekin hil zen martxoaren 26an Usurbilen.



Joxe Mari Bengoetxea Bereciartua

86 urterekin hil zen martxoaren 30ean Zubietan.



Alfredo Ruiz Puelles

82 urterekin hil zen martxoaren 31n Usurbilen.



OHARRA: 2019ko apirilaren 12an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak...

jakinarazteko azken eguna: apirilaren 8n astelehena, goizeko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Agenda apirila

05 ostirala

- 15. Soinurbil Musika Astea: "Txamukos Mariatxiak" 19:30ean Artzabalgo plazan.

06 larunbata

- Txirikorda definitzeko azken parte hartze saioa. 10:30etan Potxoenean.
- 15. Soinurbil: txistularien topaketa eta kalejirak. 12:00 / 18:00.
- 15. Soinurbil: Lauhaizeta, abesbatza eta klake taldea. 19:30ean frontoian.

07 igandea

- 15. Soinurbil: Zarauzko Musika Banda. 12:00etan kalejira / 13:00ean kontzertua frontoian.
- Korrika Musikala. Aurreko 20 Korriken abestien "azterketa", Herriko Artixten Taldearen eskutik. 19:00etan Sutegin.

Baratzezaintza ekologikoari buruzko ikastaroa

Ekoguneak, udal baratzen elkar-teak eta udalak, hutsik diren udal baratzen erabiltzera animatzeko asmoz, lur prestaketak egin dituzte. Baratzen lantzen animatzen denak Udalean eman dezake izena eta apirilaren 13rako antolatu duten baratzezaintza ekologikoari buruzko ikastaroan parte hartu. 9:30-13:30 artean izango da udal baratzen parkean. Izena online bidez eman, labur.eus/aOjOh helbidean.



Agerrazpiko udal baratzen parkean hutsik diren lursailak lantzeko prest direnen zain dira.

Txirikordaren azken parte hartze saioa

Etorkizunean Ugartondon kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua diseinatzeko azken parte hartze saioa deitu dute Usurbilgo Udalak eta Hiritik At Kooperatibak, larunbaterako (apirilak 6), 10:30-12:30 artean Potxoenean. Etxebizitzaren izaera orokorra, biztanleak eta sarrera baldintzak, espazioen diseinua eta bizikidetzaren ahotan hartu ostean, funtzionamenduari buruz jardungo dute, proiektu honen erabiltzaile potentzialak; gazte nahiz adinduek.

Sagarrondotik Sagardora ikastaroa

"Garbitasuna sagardoaren kalitatearen lagun. Sagardoa egurrezko ontzietan. Sagardoaren historia bat, zer ikasteko?" hortxe Sagarrondotik Sagardora ikastaro praktikoko hurrengo saioaren izenburua. Egoitz Zapiainek eta Jakoba Errekondok gidatuko duen hitzordua, larunbatean, apirilaren 6an 9:00etan hasita Potxoenean. Izen ematea: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com alkartasuna.eus Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

Datozenak

Usurbilgo jaiak prestatzen segitzeko deialdia

Ekainaren 28tik uztailearen 2ra ospatuko ditugun herriko jaiak prestatzen segitzeko norbanako nahiz eragileei zuzenduriko bilera irekia deitu du Jai Batzordeak, apirilaren 9rako 18:00etan Potxoenean.

M8aren osteko bidea jorratzeko bilera irekia

Emakume talde batek bilera irekia deitu du apirilaren 9an 18:00etan Potxoenean. "M8aren balorazio bilera irekia egin genuen, hainbat alor ukitu genituen eta beste hainbatetan sakontzeko gogoz gaude. Etorkizuna morez marraztu nahi dugu, guzuztion nahien eta beharren arabera, ahal dugun neurrian. Guzuztion artean emango dizkiogu forma eta norantza. Nork bere aletxoak jartzea asko delako", hurrengo astearteko bilerara bertaratzeko gonbita luzatzen dute.

Kubako aniztasun sexualaren erakusketa

Tadamun, Usurbilgo elkargune internazionalistak antolaturiko erakusketa, apirilaren 15etik 28ra Sutegi kultur etxeko aretoan bisitatu ahalko duzue.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAÑUSIA 10- atzekoaldea

943 372 795

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfn. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

#EMAN BIDEA USURBILI



MAITE PEÑA

GIZARTE
POLITIKAKO
DIPUTATUA

HITZALDIA

Gizarte gero eta zaharkituago baten aurrean, ze estrategia du Gipuzkoak nagusienen bizi-kalitatea hobetzeko? Nolakoa da arreta? Ze behar ditugu Usurbilen?

Artzabal

Apirilak 11, osteguna

18:00



Urbilen ere



egiten dugu.



21.^{æk} korrika
2019ko apirilaren 4tik 14ra
GARESTIK GASTEIZA